

ZIRI-K: IRUDIMENEAN MUGARIK EZ DENEAN

Mikelazulo

Mikelazulo  2.000

Mikelazulo Kultur Elkartean bildu gara ZIRI-K txon-txon-gilo taldekoekin ondoko solasalditxoak izateko. Beraiek barrezka aitortu bezala bi pedagogok, kazetari batek, filosofo batek eta kimiko batek osatzen dute panpinei bizitza emateko formula magikoa. Aspaldiko lagunak izan arren barne bultzada ezberdinak jarraituz iritsi dira ZIRI-K proiektu amankomuna osatzera. Hala ere, bada gauza guztien gainetik elkartzen dituen zerbait: ilusioa eta ausardia.

Etapaz asko bete ditugu Ixaren trikimailuak izeneko ikuskizuna burutu artean. Ideia aspaldikoa izan arren Kilometroak jaialdiaren azken edizioan parte hartzeko eman genion proiektuari erabateko itxura. Zeretik hasi ginen istorioa zein material guztia gure kasa lantzen.

Zeretik hastea ordea ez da definizio guztiz zehatza, ilusioa jada bereganatuta baitzuten. *Kilometroak euriaren ondorioz ezin izan genuen emanaldia eskeini.* Hala ere horrek ez zituen kikildu, lana jada prest genuen eta Orereta ikastolako aktuziotik hasita beste aukera batzu bilatu genituen.

Ordutik emanaldien zerrenda luzatuz joan da, *pixkanaka ikasi eta hobetzeko aukera ematen du esperientziak.* Materialari dagokionez elementu gehiago, elkarriketa borobilagoak... *Ikuslegoarekiko harremanak asko irakasten du.*

Solasaldian abiatzen garen heinean, partaide bakoitzaren izakera agerian geldituz doa, Ixa untxia eta bere lagunaren gisa Mikelazuloko argi eta itzalaren artean beren hitzak barneratuz. *Ahotsak gure kasa lantzea izan zen zailtasun handiena; ... Ez, nik uste gidoia, gidoi on bat aurkitzea;... Ke ba, elkartzerako orduan izan ditugu komeria handienak, bakoitzak mila gauza egin behar eta... Zenbait puntutan ezadostasunak ageri diren arren, dena konpontzen da barre algara sendo edo oroimen zirrargarri batekin.*



Haurrak eta helduak

Publikoaz itauntzean, haurrei zuzentzeaz mintzatu gara *haurrak oso publiko zorrotza dira, eta neurri berean esker onekoa. Obra gustatu ala ez, segituan adierazten dute. Horrek inprobisatzeko eremu zabala uzten digu, emanaldi bakoitza bai publiko aldetik zein behar teknikoaren aldetik ezberdina da. Helduekin ordea ezberdin somatzen dugu.* Beraien asmoen artean hartzaileen adina zabaltzea legoke, *lan kritikoagoa litzateke agian, errealitate bat aztertu eta bertan egunerokotasunaren gauzatxoak ateratzea.*

Errealitateaz mintzo garelara, iritzien beste zirimola batean murgiltzen gara, *Niri errealismo handiko panpinak era-*

OARSO

170

2000

biltzea gustatuko litzaidake, argi eta soinu egokiak...; Bi elementu horiek funtsezkoak dira, behin musikarik gabe egin genuen eta ez zegoen alderik...; Niretzat errealismoa txon-txongiloen sinesgarritasunean datza gehiago, istorioan murgiltzeko gaitasunean, protagonista txakur berde bat izanik ere mundu imajinarioa errealia bilakatzea. Ezadostasunak ageri dira berriz. Bi partaidek zenbait emanaldietako kontuak ekartzen dituzte orduan gogora eta denok hasten gara barrezka.

dago bideratua, materiala, ekipoa... Ez dugu planteatzen honetaz bizitzea, errealitateak ez baitigu uzten.

Aurrera begira beti, eskariari erantzuteko ideia berritzaileak jorratzen jarraitu nahi dute. Eta gu, publiko gisa dagokigunez, adinaren muga ezabatzen saiatuko gara. Bost gazte hauek erakutsi digutenez, ilusioa eta ausardia beharrezkoak baitira horretarako ere.

Aintzile Lejarreta, Ainara Gurrutxaga, Ederne Lizaso, Itsaso Cruz eta Urko Redondo dira taldeko partaideak.



Zergatiak

Bost gazte "zirikatzaile" hauen ustez txon-txongiloena *antzerkia plastikarekin uztartzen duen mundua da. Maila*

horretan ikusten dira gure arteko ezberdintasunak, bako-



tzak bere izakeraren arabera gidoian edo plastikari aritzen baita gehiago, eta hori oso aberasgarria da. Dena dela ez omen dira egon bakarrik bide horretan, lagun asko gerturatu dira lokaletik zein emanaldietatik beren hare aletxo gehitzera, eskergarria da oso laguntza hori. Emanaldiei dagokionez eskaria jarraia da, lortutako dirua erabiltzera

